

Josuk **nire/zure** liburua aurkitu du.

Ohartu naiz/zara Josuk **nire/zure** liburua aurkitu duela.

Lehen eta bigarren pertsonan, garbi geratzen da nor den izenordainaren erreferentzia: **ni(re)/zu(re)**.

Josuk **haren** liburua aurkitu du.

Ohartu naiz/zara Josuk **haren** liburua aurkitu duela.

haren: Josu ez den (aurretik aipaturiko) norbaiten

Hirugarren pertsonan, testuinguruak argitu behar du zein den izenordainaren erreferentzia.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



Ane ohartu da Josuk **haren** liburua aurkitu duela.

haren: Aneren / beste norbaiten

Beste hirugarren pertsona bat ageri bada esaldi berean, izenordainak ez du argitzen erreferentzia hura den ala esalditik kanpoko bat.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



Ane ohartu da Josuk **beraren** liburua aurkitu duela.

beraren: (Josu ez den eta aurretik aipatu den) edozein hirugarren pertsonaren (eskuarki, esaldian aipatua: hor, **Aneren**)

Hala, **beraren** erabiliz iradoki dezakegu hurbileneko hori dela erreferentea, eta ez lehenago aipaturiko norbait (**haren**):

[Josuk ez du begi onez ikusten idazlea]. **Ane ohartu da Josuk beraren (Aneren) liburuan irakurri duela haren (idazlearen) eskaintza.**

Josuk **bere** liburua aurkitu du.

bere: Josuren

Josuk Josuren liburua aurkitu du
adierazteko, izenordain bihurkaria erabili
behar da.

Ohartu naiz/zara Josuk **bere**
liburua aurkitu duela.

Ane ohartu da Josuk **bere**
liburua aurkitu duela.

bere: Josuren (*Aneren, *inoren)

Beraz, hiru esaldi desberdin ditugu:

Ane ohartu da Josuk **bere**
liburua aurkitu duela.

bere: Josuren

Ane ohartu da Josuk **haren** liburua aurkitu duela.

haren: Josu ez den eta aurretik aipatu den edozein hirugarren pertsonaren

Ane ohartu da Josuk **beraren** liburua aurkitu duela.

beraren: Josu ez den eta aurretik aipatu den hirugarren pertsona baten (ia beti, Aneren)

OHARRAK

1. Halako esaldietan, *berarenen* lekuan *haren* erabiltzea zuzena da. Ekialdeko hizkeretan, hori da eredua.

Hala ere, anbiguotasunak murrizteko, aukerakoa da *beraren*.

2. Mendebaldeko erabilera batzuetan, lausotu egin dira *haren/beraren/bere* bereizkuntzak.

Batetik, *beraren* forma *bere* formara lerratzen da askotan.

Haren ere gero eta baztertuago geratzen ari da erakusle-adieratik kanpo, *berek* ordezturik.



Ondorioz, hizkera batzuetan, ia dena da **bere**, bereizkuntzarik gabe.

Muturreraino eramanda, gaztelaniarekiko baliokidetasun automatikoa nagusitzen da azkenean:

haren = de aquel(la)

bere = su

3. Euskara Zerbitzuaren gomendioa hau da, prosa zaindurako:

Zentzu bihurkarian baino ez erabiltzea ***bere***, bestela zalantza eta nahasbide ugari sortzen baita testuetan.

Izenordain bihurkaria:

- ✓ Josuk **bere** nahia bete du.
- ✓ Josu **bere** lagunekin joan da.
- ✓ **Bere** herrira eraman behar dugu Josu.
- ✓ Josuri **berrea** gustatzen zaio.

bere: Josuren (ez Aneren edo beste norbaiten)

Izenordain soila (ez bihurkaria):

- ✓ Josuk **haren** nahia bete du.
- ✓ Josu **haren** lagunekin joan da.
- ✓ **Haren** herrira eraman behar dugu Josu.
- ✓ Josuri **harena** gustatzen zaio.

haren: Josu ez den norbaiten

Perpaus berean izen-sintagma bat baino gehiago hirugarren pertsonakoa bada, izenordain bihurkaria anbigua izan daiteke:

Anek Josu **bere** bulegoan ikusi du.

bere: Aneren/Josuren

Inoiz gertatzen den anbiguotasun hori bestela argitu beharko da, testuinguruak berez laguntzen ez badu.

Norberak du **bere** saminaren berri / Kanpokoek ezin parte hartu **haren** lasaitasunean.

[Es 14, 10]

Eta aingeru ahaltsu bat ikusi nuen, ahots handiz hots egiten: «Nor da gauza **liburua** irekitzeko eta **beraren** zigiluak askatzeko?»»

[Ap 5,2]

Jesus Mesias dela sinesten duen oro
Jainkoarengandik jaioa da, eta **aita**
maite duenak **beraren** seme-alabak
ere maite ditu.

[1 J 5,1]

Elizen arteko Biblia, Bilbo, 1994 (euskaratzailea:
Elizen Arteko Biblia Elkarte)

OHARRA

BERAREN (errepikapenezkoa) erabili den gehienetan,
aipatu dugun moduan, HAREN (soila) erabil
zitekeen. Bereizkuntza nagusia, erabakigarria, BERE
bihurkariaren eta bihurkari ez diren beste bien
(HAREN, BERAREN) artekoa da.

Bere azken urteetan,
denbora asko eman zuen
Dirac-ek lurbira osoan
bidaiatu eta hitzaldi
jendetsuak ematen,
beraren izena duen
ekuazio bikainaren
jatorria mintzagai.

